

BESTELAKO XEDAPENAK

INDUSTRIA, TRANTSIZIO ENERGETIKO ETA JASANGARRITASUNAREN SAILA

3063

EBAZPENA, 2025eko ekainaren 18koa, Deskarbonizazio zuzendariarena, zeinaren bidez aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena ematen baitzaizkio «Arratzua-Ubarrundia, Zigoitia eta Aramaio udal-mugarteetan (Araba) eta Otxandio, Ubide, Dima eta Abadiño udal-mugarteetan (Bizkaia) energia elektrikoa garraiatzeko SC SE Abadiano – SE Vitoria linea (220 kV) berrindartzea» proiektuari.

Espediente-zk.: 01ATY 202200072 eta 48ATY 2022000117.

AURREKARIAK

1.– 2022ko urriaren 6an, I-de Redes Eléctricas Inteligentes SAU enpresak aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzeko administrazio-baimena eskatu zituen «Arratzua-Ubarrundia, Zigoitia eta Aramaio udal-mugarteetan (Araba) eta Otxandio, Ubide, Dima eta Abadiño udal-mugarteetan (Bizkaia) energia elektrikoa garraiatzeko SC SE Abadiano – SE Vitoria linea (220 kV) berrindartzea» proiektuari dagokion instalaziorako.

2.– 2023ko maiatzaren 4an, sustatzaileak, ingurumen-dokumentazioa osatzeko, plano georreferentziatuak aurkeztu zituen.

3.– 2023ko maiatzaren 9an, ingurumen-ebaluazio sinplifikatua izapidetzeko eskaera osatu zen ingurumen-organon.

4.– 2023ko urriaren 20an, ingurumen-organoren errekerimendua jaso zen. Ingurumen-inpaktuaren azterlanaren dokumentazioa osatzeko eskatu zuten, Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasuneko eta Natura Ondareko zerbitzuek bidalitako baterako txostenean adierazitakoaren arabera. Gainera, informazioa osatu ondoren, Arabako Industria Ordezkaritzari eskatu zitzaion Arabako Foru Aldundiko Ingurumen Jasangarritasuneko eta Natura Ondareko zerbitzuen txostena jasotzeko, dokumentazio berriari dagokionez. 2024ko otsailaren 5ean jaso zen txosten hori, eta ingurumen-organuari bidali zitzaion.

5.– 2024ko otsailaren 23an, Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpena argitaratu zen. Ebazpen horren bidez, proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostena eman zen (hau da, «Arratzua-Ubarrundia, Zigoitia eta Aramaio udal-mugarteetan (Araba) eta Otxandio, Ubide, Dima eta Abadiño udal-mugarteetan (Bizkaia) energia elektrikoa garraiatzeko SC SE Abadiano – SE Vitoria linea (220 kV) berrindartzea» proiektuarena). Ebazpen horrek neurri babesle eta zuzentzaileak ezartzen ditu, proiektuak ingurumenean ondorio kaltegarri nabarmenak izan ez ditzan eta ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta egin beharrik izan ez dadin.

6.– Proiektua jendaurrean jarri da, martxoaren 31ko 48/2020 Dekretua ezarritakoa betez, zeinak arautzen baititu energia elektrikoa ekoitzi, garraiatu eta banatzeko instalazioak ez ezik, kontsumitzaileak konektatzeko harguneak, linea zuzenak eta instalazioak ere eraikitze, aldatzeko, ustiatzeko, eskualdatzeko eta ixteko administrazio-baimenaren prozedurak.

7.– Horretarako, jendaurrean jartzeko izapidearen barruan, iragarkia argitaratu zen 2024ko martxoaren 20an, bai Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean, bai Bizkaiko Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialean; eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian, berriz, 2024ko

martxoaren 14an. Halaber, iragarkia, proiektuaren dokumentuekin batera, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren webgunean argitaratu zen, interesdunek eta herritarrek aztertu ahal izateko.

8.– Kontsulta hauek gauzatu dira ukitutako ondasunak eta eskubideak dituzten administrazio, organismo eta zerbitzu-enpresei, eta dagozkien separatak bidali zaizkie:

2024ko martxoaren 11n:

– Aramaioko Udala.

– Arratzua-Ubarrundiako Udala.

– Zigoitiko Udala.

– Aire Segurtasuneko Estatu Agentzia.

– Arabako Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Zuzendaritzaren Errepide Zerbitzua.

– Enagás SA.

– Ura-Uraren Euskal Agentzia.

– I-DE Redes Eléctricas Inteligentes SAU.

2024ko martxoaren 18an:

– Otxandioko Udala.

2024ko martxoaren 19an:

– Abadiñoiko Udala.

– Dimako Udala.

– Ubideko Udala.

– Bizkaiko Foru Aldundiko Mugikortasun Jasangarriaren eta Bide Azpiegituren Zuzendaritzaren Errepide Zerbitzua.

Arratzua-Ubarrundiako Udalaren, Ura-Uraren Euskal Agentziaren, Arabako Foru Aldundiko Errepide Zerbitzuaren eta Bizkaiko Foru Aldundiko Azpiegitura eta Lurralde Garapen Sailaren txostenak jaso ziren.

Txostenak sustatzaileari bidali zaizkio, aintzat har ditzan. Planteatutako gaiak azaldu dituzte, eta txosten bakoitzari erantzun diote.

9.– Kontsulten izapidearen barruan, 2024ko maiatzaren 28an, Energia Politikako eta Meatzetako Zuzendaritza Nagusiaren aurretiazko txostena eskatu zen, Sektore Elektrikoari buruzko 24/2013 Legearen 35.2 artikuluan eta energia elektrikoko instalazioak garraiatzeko, banatzeko, merkaturatzeko eta hornitzeko jarduerak eta baimentzeko prozedurak arautzen dituen abendua- ren 1eko 1955/2000 Errege Dekretuaren 114. artikuluan ezarritakoaren arabera.

2024ko ekainaren 6an, Energia Politikako eta Meatzetako Zuzendaritza Nagusiaren aldeko txostena jaso zen.

OINARRI JURIDIKOAK

1.– Deskarbonizazio Zuzendaritza da espediente hau izapidetzeko eta ebazteko organo eskuduna, Industria, Trantsizio Energetiko eta Jasangarritasunaren Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abenduaren 3ko 410/2024 Dekretuan xedatutakoaren arabera.

2.– Espedientea izapidetzean, arau hauetan ezarritako izapideak bete dira: 24/2013 Legea, abenduaren 26koa, Sektore Elektroari buruzkoa; 21/2013 Legea, abenduaren 9koa, Ingurumen-ebaluazioari buruzkoa; 3/1998 Lege Orokorra, otsailaren 27koa, Euskal Autonomia Erkidegoko Ingurumena babesteko; 1955/2000 Errege Dekretua, abenduaren 1ekoa, Energia elektrikoko instalazioen garraio, banaketa, merkaturatze eta hornidura jarduerak eta baimen-prozedurak arautzen dituena; eta 48/2020 Dekretua, martxoaren 31koa, energia elektrikoa ekoizteko, garraiatzeko eta banatzeko instalazioen administrazio-baimenaren prozedurak arautzen dituena.

3.– Egindako kontsulten emaitzak ikusita, ez da ikusten proiektua gauzatzearen aurkako arrazoirik edo eragozpenik dagoenik.

4.– Ingurumenaren Kalitatearen eta Ekonomia Zirkularraren zuzendariaren ebazpenean, energia elektrikoa 220 kV-ko zirkuitu sinplean garraiatzeko linea (SE Abadiano-Vitoria) berrindartzeko proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostena argitaratu da. Bertan, proiektuak ingurumenean izan ditzakeen ondorioak aztertzen dira, eta proiektua gauzatzeko baldintza lotesleak ezartzen dira, bai eta babesteko, zuzentzeko eta konpentsatzeko neurriak eta dokumentu-eskakizunak ere. Proiektu honen ingurumen-inpaktuaren ebaluazio arrunta ekiditeko, nahitaezkoa da neurri horiek betetzea. Hartara, neurri lotesleak izanik, ebazpen honen baldintzei gehitu zaizkio.

BETE BEHARREKO BABES-NEURRIAK:

1.– Natura-ondarea babesteko neurriak:

- Kontserbazio bereziko eremuak (KBEak) eta parke naturalak (Urkiola, Gorbeia, Zadorra) kontserbatzeko dekretuak betetzea.
- Espezie babestuak eta interes komunitarioko habitatak identifikatzeko aurretiazko prospekzioa.
- Lurzoruaren okupazioa ahalik eta txikiena izatea.
- Makineria astuna ibaiertzetan eta eremu sentikorretan erabiltzeko debekua.
- Zuhaitzen mozketak geldialdi begetatiboan egitea; mozketak osoa, beharrezkoa denean bakarrik.
- Obren ondoren, ingurunea espezie autoktonoekin lehengoratzea.
- Hegaztien kolisioaren eta elektrokuzioaren aurkako neurriak ezartzea.
- Inbaditzaileak diren espezieak kontrolatzea.

2.– Uren eta lurzoruaren babesa:

- Isuri eta emisio kutsagarriak ahalik eta gehien murriztea.
- Ur kutsatuak jasotzeko eta kudeatzeko sistemak instalatzea.
- Makineria-eremuetan zoladura iragazgaitza eta euste-sistemak erabiltzea.

- Mantentze-lanak baimendutako guneeetan soilik egitea.

3.– Paisaiaren babesa:

- Obrek eragindako eremu guztiak lehengoratzea landare-espezie autoktonoekin.
- Landare espezie inbaditzaileen kontrola lehengoratzen ari diren lurretan.
- Paisaia-balio handiko eremuetan paisaia-integraziorako neurriak ezartzea.

4.– Zarata eta bibrazioak:

- Obretan jardunbide egokiak aplikatzea.
- Makineria araudi akustikoarekin bat erabiltzea.
- Zarata-mailak ez gainditzea.

5.– Hondakinen kudeaketa:

- Hondakin arriskutsuak eta ez-arriskutsuak bereizita kudeatzea.
- Hondakinak nahasteko debekua.
- Olio erabilien eta eraikuntza-hondakinen kudeaketa berezia.
- Aldi baterako biltegitratze-eremu egokiak prestatzea.

6.– Airearen kalitatea:

- Bideak garbitzea eta ureztatzea hautsa saihesteko.
- Materialen garraioa baldintza egokietan egitea, partikulak hedatzea saihesteko.

7.– Kultura-ondarea babestea:

- Arkeologia-jarraipena egitea eremu sentikorretan (69 eta 99 euskarriak).
- Aurkikuntza arkeologikoak egiten badira, berehala jakinaraztea.

8.– Jardunbide egokiak eta jarraipena:

- Obraren okupazio-mugak eta obrak habitatean duen eragina kontrolatzea.
- Baso-suteak prebenitzea.
- Obra amaitutakoan, garbiketa orokorra egitea.
- Ingurumen-aholkularitza obra osoan zehar eta berme-epean.

Aipatutako lege-xedapenak ikusita eta oro har zein berariaz aplikagarri diren gainerakoak oinarri hartuta, Deskarbonizazioko zuzendariak hau

EBAZTEN DU:

I-de Redes Eléctricas Inteligentes SAUri aurretiko administrazio-baimena eta eraikitzekeko administrazio-baimena ematea «Arratzua-Ubarrundia, Zigoitia eta Aramaio udal-mugarteetan (Araba) eta Otxandio, Ubide, Dima eta Abadiño udal-mugarteetan (Bizkaia) energia elektrikoa garraiatzeko SC SE Abadiano – SE Vitoria linea (220 kV) berrindartzea» proiektuari dagokion instalaziorako.

Baldintza orokor hauek kontuan hartuz ematen da ebazpen hau:

1.– Onartutako proiektuari jarraikiz egin beharko dira obrak, kasu bakoitzean eskatu eta baimenduko diren aldaketekin.

2.– Martxan jartzeko epea hiru urtekoa izango da, ebazpen hau ematen den egunetik aurrera zenbatzen hasita. Epe hori igaro eta ez bada instalazioa ustiatzeko baimenik eskatu, ebazpen hau iraungitzat jo ahal izango da.

3.– Proiektua gauzatzeko, sustatzaileak kontuan hartu beharko ditu proiektuaren ingurumen-inpaktuaren txostenean ezarritako neurri babesle, zuzentzaile eta konpentsatzaile guztiak, bai eta horiek egiteko ezarritako baldintzak ere. Neurri horien zerrenda Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen 2024ko martxoaren 27an.

4.– Instalazioen titularrak, proiektua gauzatu ondoren, eta arauzko egiaztapenak egin ondoren, obrak amaitu direla jakinaraziko die Arabako eta Bizkaiko lurralde-ordezkaritzari, ustiatzeko eta martxan jartzeko baimena eman dezaten. Horrekin batera, aplikatu beharreko erregelamendu teknikoetan adierazten den dokumentazioa aurkeztuko du.

5.– Obrak egiteko beharrezko diren baimenak, lizentziak eta bestelakoak (udalena, probintziena...) edozein direla ere ematen da ebazpen hau, eta ez du salbuesten eskatzailea haiek eskuratzeko obligaziotik. Era berean, hirugarrenen eskubideei kalterik egin gabe eta jabetza-eskubidea salbu utzita ematen da.

Ebazpen honek ez du administrazio-bidea amaitzen, eta beronen aurka gora jotzeko errekurtsioa jar daiteke Trantsizio Energetikoko sailburuordearen aurrean, hilabeteko epean, ebazpen hau jakinarazi eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko urriaren 1eko 39/2015 Legearen 121. eta hurrengo artikuluen arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2025eko ekainaren 18a.

Deskarbonizazio zuzendaria,
GUILLERMO ALLENDE ARANGUIZ.